

Arabar Errioxako 106 ikaslek landu dute bertsolaritza eskola ordutan

Uxue Diaz de Cerio, Arabako Bertsozale Elkarteko irakaslea, klasea ematera etorri da Arabar Errioxako 4 ikastetxetara.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak izan dira, Gu ere bertsolari programan parte hartu dutenak. Oiongo, Lantziegoko, Lapueblako eta Bastidako ikastetxeetako gaztetxoak aritu dira bertsotan 2012-2013 ikasturtean zehar.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, hitzekin eta euskararekin jolastuz eta bide batez, hainbat bertso emanaldi burutu dituzte klasean prestatutako bertsoekin; Gabonetako jaialdietan, Errioxako irratian... GU ERE BERTSOLARI programa "Bertsolaritzaren curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA eta TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK.

EDERKI ARI ZARETE ARABAR ERRIOXARRAK!!

Arabar Errioxako bertso-eskola

HELDU ETA GAZTEEN TALDEA: Asteazkenetan 18:30etan Oiongo AEK-n

HAURREN TALDEA SORTU NAHI DUGU!



ANIMA

**ZAITEZ ARABAR ERRIOXAKO
BERTSO ESKOLARA!!**



92
landrio
bertso eskola



Arabar Errioxako bertsolariak 2013ko Arabako Bertsolari Txapelketan

Aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketan 3 Txandriotarrek hartu dute parte, Iker Olabarrieta, Unai Bengoetxea eta Orlando Arreitunandia. Aurrekanporaketei aurre egin eta kanporaketetan ikusteko aukera izan genuen. Orlandok finalaurrekoetarako txartela lortu zuen Izarrako kanporaketan kantatzeko. Hori gutxi balitz, Alaznek gai-jartzaile lanak egin zituen otsailaren 3ean Lantziegon ospatu zen kanporaketan eta Mikel Fernandez de Arroiabe epaile lanak burutzen ibili zen. Hemen egun horretako kronika laburra:

Bosgarren eta azken kanporaketa, igandean, jokatu zen Arabako Errioxako Lantziegon. Bertan, Oiongo Alazne Garcia aurkezle lanetan aritu zen eta lehenengo fase honetan epaile lanetan aritutakoak Patxi Aizpurua, Karla Santisteban eta Mikel Fernandez de Arroiabe.

Giro epelean burutzen kanporaketa Lantziegoko Iradier jatetxean, 50 bat lagun elkartu ziren bazkaldu eta bertsolariak entzutera.

Hiru epaileen puntuazioa ondorengoa izan zen: Manex Agirre (152,5 p.), Zigor Enbeita (151,5 p.), Juan Mari Juaristi (135,5 p.), Ainhoa Comas (129 p.), Iñaki Tena (127,5 p.), Xabi Rico (125,5 p.)

Aurtengo txapelketan errioxarron presentzia bolo-bolo ibili da hainbat bertsolari eta bertsozaleren ahotan. Datorren urteko kuadrillen arteko txapelketan zeresan handia eman dezakeen taldea dela argudiatuz. Txandriotarrok harro egoteko lana burutu dugu 2013ko Arabako Bertsolari Txapelketan, beraz, zorionak antolatzaile, gai-jartzaile, bertsolari, laguntzaile eta bertsozale guztioi!!



Saio andana Arabar Errioxan!

2012-12-13 Oion, Euskaltegiako saio didaktikoak

2013-02-03 Lantziego, Arabako Bertsolari Txapelketa

2013-03-23 Arabar Errioxako Korrika jaialdia

2013-05-10 Eskuernaga, "Arabako Bertso Eskolak 11 opari"

2013-06-02 Oion, Euskal Kultur Asteko jaialdian. "Arabako Bertso Eskolak 11 opari"

2013-06-14 Bastida, Bastida Ikastolako saioa

2013-06-17 Oion, San Bizente Ikastolan saio

2013-06-17 Lantziego, Lantziego eskolan saio

Arabar Errioxako bertso-eskola
OIONGO IKA euskaltegian
Diputazioa, 32
ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
tel: 945 010505
e-posta: araba@bertsozale.com

